

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Sei artikuluz osaturik dator *Uztaroren* 63. zenbakia. Antropologiatik feminismoaren inguruko eztabaidak aztertzen dira. Historiatik Sabino Aranaren euskaraz mintzatzeko ahalak zenbaterainokoak izan ziren argitzen zaigu. Hizkuntzalaritzatik euskarazko oharren-aditzen osagarrietako perpaus jokatu gabeak zer-nolakoak diren erakusten da. Informazio Zientzietatik irrati eta telebistara lehen aldiz hurbiltzen direnen beldur eszenikoa gainditzeko beharrezkoa den hezkuntza aipatzen da. Psikologiatik emozioen tratamendua nola aldatu den denborarekin puntualizatzen da. Jakingarriak eta prestuak ageri zaizkigu egiten diren ikerketak. Ekonomia aplikatutik garapeneko parte-hartzeak adierazten duena arakutzen da. Aipatu lanak banan-banan sakonagoatik aurkezten saiatuko gara gure ohiko ekimenari jarraiki.

“Antropologia feministaren sorrera eta teoria antropologiko feminista nagusiak” artikulua, gaian gaurdainokoa egindakoa laburbiltzera dator. Horrela adierazten zaigu antropologia feminista XX. mendearen bigarren zatian sortua dela. Bi kezka zituen kontuan. Batetik, emakumeen ikusezintasuna eta, bestetik, antropologian nagusi zen androzentrismoa. Azken izaera hori eraginkor denean posible da gizonei dagokiena garrantzitsuagoa dela pentsatzea. Gizarte anitzetan gizonek emakumea mendean dutela agertzen zaio antropologoari. Marko teoriko kontzeptualetik ere arazoak sortzen ahal dira gu geu ez bezalakoarekin topatzean. Arrazoi horiek antropologia feminista aurrekoen antropologiarekin haustera bultzatu izan dute. Haustura hori 60ko edo 70eko hamarkadetan gertatu zen. Horretarako bidean hainbat emakume antropologo funtzionalista eta iparramerikar aitzindari izan ziren. Emakumearen antropologia egitetik emakumeen antropologia eta genero-antropologia egitera igaro zen. Horrela, emakumeak ikusgarri gerta zitezen lan egin behar izan zuen hainbatek. 80ko hamarkadan kontzeptu berriak garatzeari ekin zitzaion. Sexuari dagokionez, ez da zuzena zer edo zer objektibo eta neutral bezala onartzea. Generora errekurrituko da. Gizon eta emakumeei buruzko irudikapen eta jarduera sozial oro ulerturik botere eta espazioaren bereizketan eragiten duena agertzeko, alegia. Hala ere, teoria feministen bilakaera aztertzerakoan, hasierako antropologia feminista anglosaxoiari arreta berezia eskaini beharrean aurkitzen dira. Generoaren ikuspegi sinboliko edo kulturala eta generoaren ikuspegi materialista landu zituen. Sherry Ortner-ek emakumeen mendekotasun unibertuala azaldu nahi izan zuen. Arrazoitzeko argudio fisiologikoak, rol sozialaren eta egitura psikologikoaren argudioak erabili zituen. Michelle Rosaldo-k domestiko/publiko dikotomia erabiliz frogatu nahi izan zuen. Nancy Chodorow-ek amatasun soziala hartu zuen ardatz. Ikuspegi psikoanalitikoak da nagusi haren arrazoibidean. Elenor Leacock-ek, Engels-en ildoari jarraiki, gizarte batzuk berdinzaleagoak izan behar zirela adierazi zuen. Karen Sacks-en iritziz, sistema ekonomikoa komunala edo familiarra izan daiteke. Lehenean, emakumea anitzez askatuago aurkitzen zela esan zuen. Esther Boserup-ek emakumeek egindako lanak aztertuz sailkatu egin zituen. Gaur egun, generoen arteko harremanak aztertzen dira. Testuinguruari garrantzia onartzen zaio. Genero eta estratifikazio-faktoreen uztarpena egiten da. Errealitate soziokulturalen antzekotasuna gorai pa-

tzen da. Dikotomia kontzeptualen kritika jorratzen da. Praktikaren analisiaren eta egitura eta ekintza sozialen arteko harremana azpimarratzen dira. Konplexutasuna eta aniztasuna ere ezaugarriak dira.

“Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?” artikulua, euskara erabiltzeko gai ote zen eta noiz erabiltzen zuen argitzera dator. Bazekien ala ez zekien euskara mintzatzeko moduan? Sabino Arana hemezortzi urterekin hasi zen euskara ikasten. Autodidakta moduan egin zuen ikasketa, Astarloa eta Van Eys-en hiztegiak baliatuz. Ez zuen aurkitu euskara estandarrik, ezta ikasteko metodorik ere. Euskara batez ere ahozko hizkuntza zen. Euskara entzuteko baserritar eta arrantzaleen artera joan behar izan zuen. Horrela euskara modu mugatu eta idealizatuan ikasi eta irudikatu zuen. Sabino Aranak idatzitako testuen % 16 da euskaraz. Erdaraz 1.283 orrialde idatzi zituenean, aldiz euskaraz 382 orrialde idatzi zituen. Hizkuntza nazionala izan behar zuen euskarari esparru sinbolikoa gorde zion. Emaztea Sukarrietako euskalduna izanik, Bizkaiko barnealdean kokatu zen. Baina bere jarraitzaile lehenak Bilboko burgesia txikiko kideak ziren. Sabindarrekin biltzean erdaraz jarduten ziren. Eskutitzak idaztean, euskaraz zekiten bere gogaide kutunei ere erdaraz egiten zion. Euskaltzaindia sortzean polemika piztu zen sabindarren artean. Sektore batentzat, horien artean Evaristo Bustintza zegoen, ereduako euskara bakarra Sabino Arana defuntuak proposaturiko *euzkera* garbi hura zen. Aldiz, Engrazio Aranzadik ordezkatzan zuen sektoreak Euskaltzaindiaren aldeko jarrera hartu zuen. Arazoa, ordea, Bustintzak euskaltzain guztiak ez zirela gauza euskaraz hitz egiteko argudiotzat erabiltzean, Aranzadik ihardetsi zionean, hori horrela bazen, Sabinok, euskara mintzatu ezin zuenez, akademiko ezin izana gertatuko zitzaioela idatzi zuen unetik abiatu zen. Zer da aipaldi horretan egia? Bustintzak lekukotasunak ekarriz erantzun zion Aranzadiri, baserritar eta arrantzaleekin, geldiro-geldiro, erraztasunik gabe, baina euskaraz aritzen zela Sabino. Hala ere, hainbat lekukotasun dago Sabino Aranaren jarraitzaileengandik heldu zaizkigunak, diotenak, maila jasoagoko pertsonekin, nahiz euskaldunak izan, gaztelaniaz mintzo zela Sabino. Bestalde Bermeoko hitzaldia daukagu zeinean, euskaraz badago ere, ohiko neologismorik gabe, erdarakadak agerian diren barra-barra. Ezin omen da jakin testu hori Sabino Aranak bere eskuz idatzi ote zuen. Baina susmoa dago, herritarrei zuzentzen zitzaieanean, ahozko biz-kaiera egiten saiatzen zela, erdarakadak eta guzti, alegia. Artikulugileak jakitatez eta fintasun handiz jorratzen du gaia.

“Euskarazko oharmen-aditzen osagarrietako perpaus jokaturgabeak” artikulua, *-t(z)en* morfemadun egitura jokaturgabeak Aspektu Sintagmak direla agertzeraz dator. Horretarako hainbat urrats dituen demostrazio-prozedurari jarraitzen zaio. Hasteko, PVC egituren ezaugarriek edo oharmen-aditzen osagarriek ezaugarri bereziak dituztela. Horrela, oharmen-aditzen osagarriek erakusten duten osotasuna nabarmenagoa zaigula esaten da, aztertzen ari garen ingurune isolatuan agertzen denean. Bestalde, esaten zaigu proposatzen den egiturak gai izan beharko duela azalpen egokia eskaintzeko bai osotasunari, bai zatigarritasunari. PVC egiturako subjektuak kasu absolutiboa/partitiboa jasotzen duela, baina ezin duela kasu ergatiborik azaldu. Posible da ere ageriko subjekturik ez duen egitura izatea oharmen-aditzen osagarrian. Komunztadura-harremanetan, PVC egiturako subjektua perpaus nagusian kokatuta dagoela iradokitzen duen datu bat aurki dezakegu. Hala ere, oharmen-aditzen kasuan, komunztadura ezinbestekoa da

hiztun guztientzat. Mendeko aditzaren osagarriko anaforak, berriz, PVC egiturako subjektuari egiten dio erreferentzia, eta ez perpaus nagusiko subjektuari. Perpaus nagusiko subjektua aitzindari egokia da PVC egiturako subjektuarentzat. PVC egiturako subjektuak gisa jokaten du PVC barruko osagaietarako, baina perpaus nagusiko osagarri gisa jokaten du bertako subjektuarekin. Perpausaren ezeztapena eta predikatuaren ezeztapena bereizi behar dira. PVC egituretan Ezezko Polaritatedun subjektua zilegitu dezakeen ezeztapen bakarra perpaus nagusian kokatutakoa da. Mendeko egituran kokatutako ezeztapenak subjektua ez beste, Ezezko Polaritatedun elementu guztiak zilegitu ditzake. PVC egiturek ez dute eragozten NZ hitzen mugimendua perpaus nagusiko posiziora. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen PVC egiturako aditzen osagarriko NZ hitzekin. Mendeko aditzaren osagarriko NZ hitzek *pied-pipinga* eragin ohi dute perpaus nagusiko posiziora mugitzean. Datu hauek iradokitzen dute NZ mugimenduak gertatzen direneko mendeko subjektua PVC egituratik banatu dela. Euskarazko oharmen-aditzek *-t(z)en* morfemadun osagarriak hartzen dituztela ekintza osoa (-prog.) nahiz haren zatia (+progr.) deskribatzeko frogatzen da. Argi dago PVC egituretan ez dagoela *-t(z)en* morfema baino ageriko egitura konplexuagorik. Argi dago ere adizlaguna mendeko egituran dagoela txertatua, mendeko aditzaren eta haren osagarriaren artean agertzen baitzaigu. Oharmen zuzenaren interpretazioa posible izan dadin, oharmen-aditz baten perpaus osagarri jokatu gabeak Egoera Predikatua jaso behar du. Bestalde, PVC egiturako subjektuaren gaineko murrizketa mendeko aditzak ezartzen du, eta ez oharmen-aditzak. Esan gabe doa kontrakoa ere gerta daitekeela. Argi dago, hortaz, ez subjektu hutsak ez predikatu hutsak ez dutela bermatzen oharmen-aditzak PVC egitura onartzea edo baztertzea. Hori horrela dela demostratu eta gero, PVC egiturak azaltzeko egindako proposamen esanguratsuenen azterketa egitera igarotzen da artikulugilea. Orain arteko proposamenak gogoratzetik hasten da. Ingeleseko IPVC egituretako aditza aditz soil bezala interpretatzerik balego ere, Aspektu Sintagmaren baitan ez dugu ingelesezko *-ing* edota euskarazko *-t(z)en* morfementzako azalpenik. Akmajian-en proposamena daukagu: hitz-hurrenkerarena, alegia. Euskara bezalako hizkuntzen kasuan, Akmajian-en proposamena erabat ezohikoa eta *ad hoc* izango litzateke; PVC egiturentzat berariaz eraikitako egitura. Euskararen kasuan, hurrenkera hutsa baino gehiago dugula iradokitzen duten aldaketa sintaktikoak antzematen ditugu, PVC egituran ez bezala, alegia. Nahiko arrazoi dugu, hortaz, Determinatzaile Sintagman oinarritutako azterbidea alde batera uzteko. Konplementatzaile Sintagma biltzen duen egitura badugu. Euskaraz jokatu gabe ko perpaus kontzesiboen kasuan, subjektuek kasua erka dezakete. Bestalde, kontuan hartu behar dugu Konplementatzaile Sintagman oinarritutako azterbiderako eredu bat baino gehiago proposatu izan dela. Goenagak, berriz, kontrol-egitura proposatzen digu, PRO elementua PVC egiturako (Espec, Infl') posizioan kokatuz eta haren indizekide den DS/IS PVC egituratik kanpo emanaz. Planteamendu horrek aipatu arazo gehienak saihestuko lituzke. Nolanahi ere, Konplementatzaile Sintagmaren kontrako argudiorik sendoena, ikuspegi minimalistatik, ekonomiaren hatsarrean aurki dezakegu beharbada. Are, Inflexio Sintagmaren proposamenak bide interesgarria zabalduko liguke PVC egiturak igoera egitura bezala deskribatzeko. Hala ere, azterbide horrek ez digu argitzen zergatik ezin den agertu *-t(z)en* morfema baino ezekin egitura konplexuagorik. Izan ere, euskaraz, kontua bihurritu egiten da. Horri gehitu beharko litzaizkioke euskaraz infinitibotzat zer

hartu beharko genukeen zehazteak sortuko lituzkeen eragozpen guztiak. Aditz Sintagmaren azterbidea da beste irteera bat. Baina euskaraz ez dugu infinitibodun PVC egiturarik. Perpaus Txikien azterbidera ailegatzen gara. Felser-ek dio Perpaus Txikietan dugun islapen nagusia nolabaiteko Komuntzadura Sintagma izan beharko litzatekeela, subjektuaren eta predikatuaren arteko harreman hori bermatu ahal izateko. Chomsky-k zalantzan jartzen du Komuntzadura Sintagmaren funtzioa eta izatea bera. Azkenik, Aspektu Sintagmaren proposamena daukagu. Bide horretan sartzeko *-t(z)en* morfemaren izaeraz zerbait adierazi beharra dago. Horrela, *-t(z)en* morfema oso eta bakarra dela erakusten da. Eta morfema horrek Asp posizioa betetzen duela PVC egituretan. (Asp-S-t(z)en) eta (Post-S-t(z)en) azterbideak aurrez aurre jarririk, gaurko euskararen ikuspegitik, PVC egituretan agertzen den *-t(z)en* morfema hurbilago dago adizki perifrastikoetako *-t(z)en* aspektu-markatik *-t(z)e + -n* egituratik baino. Hori horrela izanik, aurreikus liteke edozein hiztunek forma bera erabiliko duela aditz perifrastikoen eta oharmen-aditzen osagarrietan, eta alderik izatekotan, horien eta inesibodun nominalizazioaren artean izango dela. Nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan hartzea genitibodun egiturak onartzen dituzten hiztunek ere ontzat ematen dituztela kasu absolutibodunak, eta azken horiek hiztun guztiek ematen dituztela ontzat. Aspektu Sintagmaren alde egiteko beste arrazoi bi ere badaude: ekonomiaren hatsarrea, eta beste egitura batzuetako *-t(z)en* morfema nolabaiteko aspektu-markarekin edo Asp-Sintagmarekin lotu izana. Euskarazko Aspektu Sintagmari dagokionez hauxe agertzen digu: mendeko egituren kokatutako denbora-adizlagunak perpaus nagusiaren gaineko besarkadura izango duela gehienetan. Halaber, mendeko egituren adizlaguna agertu ahal izateak argi uzten du adizlagun hori Dnb-S baino sakonagoko egitura bati dagoela atxikia. Beste ezaugarri batzuk ere aipatuko dira: subjektua PVC egituraren baitan biltzeak, gainera, oharmen-aditzak PVC egitura osoaren gaineko murrizketa ezartzea adierazten duela da bata. Bestea, berriz, Aspektu Sintagma, halaber, *-t(z)en* morfema kokatzeko gune egokia eskaintzen digula. Igoeran oinarritutako ereduaren abantailak ere baditu. Komuntzaduraren auziari lotuta ere argi dago PVC egitura biren koordinazioak subjektuen koordinazio bezala jokatzeko duela. Anafora-harremani dagokienez, perpaus nagusiko subjektua aitzindari egokia gertatzen da PVC egiturako subjektuan kokatutako anaforarentzat. Gauza bera horretan agertzen den aditzaren osagarriko anaforarentzat. Perpaus kontzesiboetan aurkitzen denak ere erakusten du PVC egituretan ez dagoela perpaus mailako ezeztapenik. PCV egituretan agertzen den ezeztapena beti aditzari ezkerretik atxikita agertzen dela. Euskarazko perpaus mailako ezeztapenaren gainekoa neurtzeko Ortiz de Urbinak proposatutako ereduaren egokitzapena erabiltzen da. Ezeztapenaren eta Ezezko Elementuen arteko loturari dagokionez, Felser-en analisiari jarraiki aurreikuspena da *in situ* motako osagarrien kasuan ezeztapena osagarriaren ezkerretara geldituko dela, baina ezeztapena aditzari atxikita agertzea dela ohikoena. Bestalde, ematen du partizipio-formak (*-i*, *-tu*, *-n*) eta prospektiboak (*-ko*, *-go*) ez zaizkiola progresiboa txertatzen den gune berean lotzen egiturari. Frogatuta gelditzen da, orobat, perpausaren argumentuak Aditz Sintagman txertatzen direla eta han jasotzen dituztela theta-rolak. Hitz laburtuetan adierazita hauxe esaten da: lehen atalean deskribatutako ezaugarri guztiak azaldu ahal direla Aspektu Sintagman eta azterbide minimalistak proposatutako ekonomia-hatsarreetan oinarrituta.

“Norberarenganako konfiantza eta beldur eszenikoa irrati eta telebistan” artikuluak alfabetizazio emozional handiago baten beharra gomendatzen die audientziatarako bidea naturaltasunez egin nahi duten komunikatzaileei. Horretarako konstatazio batetik abiatzen da: Gizarte Zientzia eta Komunikazioko ikasleak inolako prestakuntzarik gabe jartzen direla kamera eta mikrofonoen aitzinean, eta gabezia horrek beldur eszenikoa sortzen diela norberaren adierazkortasunean ahulezia erakutsiz. Esperimentuan aztertzen da jendaurrean aurkezten diren gizabanakoen azalpenetan norberarenganako kontzeptua aldatzeko orduan nola eragiten duen emanaldiaren kalitateak. Telebista tradizionalak komunikazioarekin eredu pedagogiko bat eskaintzen zuen bitartean, telebista berriak bizitzarekin nahasten den errealtate bat birsortuko lukeela adierazten da. Komunikatzaileek inprobisazio-ariketa amaigabe bat gauzatzen dute eta badirudi edozein unetan ustekabekoren bat gerta dakiekeela. Hizlariak ikusleak barneratzen dituen elkarrizketa bateko lehen planoan agertzen baitira. Irrati eta telebistako protagonista animatzaile fina bilakatuz. Gaur egungo aurkezleak hizketaldian oinarritutako hurbiltasun-harremana birsortu behar du kazetariaren sinesgarritasuna eta artisten prestigioa lortu nahi baditu. Komunikatzaile berrien prestakuntza ezin daiteke unibertsaltasunez aplikatuko diren kanon batzuen arabera eratu. Komunikatzaile berriei, orduan, esaten, pentsatzen, sentitzen eta gorputzarekin espresatzen dutenaren artean ahalik eta koherentziarik handiena ukan dezaten irakatsi behar zaie. Gizabanako anitzek ez du ezagutzen bere espresio propioa zein den. Gogora dezagun ere gizabanakoen beldurrik zabalduena besteek sortzen digutena dela. Eta daukagun izu kulturalik handiena gaitzespen soziala dela. Norberaren baitan konfiantzarik ez badago ezin dezakegu besteengan konfiantzarik lortu. Gure pertzepzio propioa deskribatzeko erabiltzen diren kontzeptu desberdinen artean definizio propioa eta autoestimua dira komunikazioan zuzeneko eraginik handiena duten faktoreak. Argi dago, egon badagoela korrelazio nabari bat antsietate sozialaren eta autoestimu baxuaren artean eta egoera hori pentsamendu eta gorputz-jarrera ezkorretan islatzen dela. Prestakuntza-proposamen berri bat egiten da: ahotsaren, gorputzaren eta buruaren inposaketa egoki bat erakutsi behar dela da, alegia. Ikasleen aktibazio egokia lortu audientziarekiko harreman traketsak saihesteko; ikasleei positiboki pentsatzen erakutsi; praktika eta jarraitutasuna indartu; eta ahotsaren funtzionamendua hobeto ezagutu eta interpretazioaren oinarritzko teknikak barneratu. Esperimentatzeko orduan talde esperimental bat eta formazio estandar bati jarraitu zion kontrol-talde bat erabili ziren. Esperimentuaren metodologia eta analisisa aurkezten dira: irrati eta telebistako estudioetan beren lehenengo grabaketa egin aitzin «Autoinforme Autocencepto Forma 5» izeneko testa pasatu zuten; kamara eta mikrofono aitzinean izandako esperientzia laburbilduz beste galde-sorta bat bete zuten. Kobariantza-analisi baten bidez jendaurrean aritzeko konfiantza-graduaren eta autokontzeptuaren aldagai dependentearen arteko harremana neurtu zen. Jendaurrean hitz egiteko beldurraren gaineko A. emozionalaren efektuak neurtu ziren. Baita A. sozialaren efektuak ere. Lokuzio-kurtsoa amaitzean parte-hartzaile guztiek irakasgai planteatutako ikaskuntza-prozesuaren inguruko bizitza-historia idatzi zuten. Konfiantza falta nabarmentzen zen. Urduritasunaren kontrol zaila. Ondorio orokor bat ateratzekotan denek identifikatzen duten beldur eszenikoa izango litzateke irrati eta telebistan alaitasunez moldatzeko oztopo nagusia.

“Emozioei begirada psikologikoa” artikuluan, emozioei buruzko ikerkuntzan zehar gertaturiko gorabeherak eta gaur egungo planteamenduak laburbiltzen dira. Hirurogeiko hamarkadan bakarrik hasi zen emozioei buruzko ikerkuntza sistematiko eta jarraitua. Arrazionalismoak, oro har, emozioekiko ikuspegi ezkorra bultzatu zuen. Konduktismoak berriz emozioen ikerkuntza balio gabetu egin zuen. Azken hiru hamarkadetan, AEBn, ikertzaileek esperientzia emozional subjektiboa ikertu dute. European, aldiz, esperientziaren egitura ikertzeraz mugatu izan dira. Emozioen ikerkuntzak zailtasunak planteatzen baitzkie metodo zientifikoari. Zer gertatu da azken horrek abiada har dezan? Alde batetik, diziplina biologikoak garrantzi berria hartu duela. Bestetik, psikologian iraultza kognitibista burutu dela. Psikologia kognitiboak, ez bairik gabe, eragin nabarmena eduki du ikerkuntzara igarotzeko orduan. Faktore soziokulturalen presentziak ohartzea beste eztenkada bat izan da. Horrela, emozioek balio berri bat hartu dute gizartean. Bizitzaren osotasuna intentsitate handiko emozioak esperimendatzearekin identifikatzen da. Emozioen teorietara igarotzen bagara, honekin aurkitzen gara: emozioak organismoarentzat esanguratsuak edo garrantzitsuak diren estimuluei emandako erantzunak direla eta osagai batzuen arabera definitzen direla. Emozioen neurobiologia aztertzeraz igarorik, arreta handirik ez ziela eskaini konstatatzen dugu. Estimulu esanguratsua hautematean, estimulu emozionala izendatzen duguna, informazioa talamora iristen da. Horretan, bi bide ezberdin har ditzake emozioak: amigdalara doana edo neokortexera doana. Lehen bideak oso azkar iristen den informazio zehaztugabea maneaten du. Animaliak eta gizakiak parekatzen ditu. Bigarrenak, zehaztasun handiz aztertzen du. Animaliak eta gizakiak desberdintzen ditu. Esperientzia emozionalak kulturaren eraginez beste hizkuntzetara itzultzea zail egiten da. Zenbait termino itzultzea ia ezinezkoa gertatzen da. Hizkuntza zehatz batean beste hizkuntza bateko terminoaren berdinik ez aurkitzeak ez du esan nahi sentimendu hori ez dela ezagutzen. Bada zenbait emozio gizarte espezifiko batzuekin eta une historiko jakin batzuekin soil-soilik erlazionatzen direnak. Izan ere, sentimenduarau batzuk kulturalki eta historikoki aldakorak baitira. Horrela, maitasun erromantikoaren unibertsaltasuna oso eztabaidagarria izan daiteke. Besteen mundu emozionalean sakontzea ia ezinezkoa gerta daiteke, are beste hizkuntza bat hitz egiten denean. Horretan guztian oinarritzko bidea narratibarena da. Bestalde, portaera berbera emozio ezberdinengatik eman daiteke eta testuingurua ezagutzen ez badugu, zaila egingo zaigu norbait sentitzen ari den emozioa identifikatzea. Gaur egun oinarritzotzat jotzen diren sei emozioen aurpegi-mugimenduen deskribapena egin dago: poza, haserrea, beldurra, ustekabea, atsekabea eta tristezia, alegia. Badirudi kultura guztietan emozioak aurpegi-espresio berdinarekin adierazten direla. Nola uler daiteke antropologoen kontrakoa aurkitu izana? Arautze-fenomenoari esker. Arau hauek haurtzaroan ikasiko lirateke eta gero ere, maila sozial, jatorri etniko eta sexuaren arabera aldatzen joan litezke kultura beraren barrenean une historikoen eraginez. Badirudi emakumezkoek emozio positibo gehiago eta intentsitate handiagoz adierazten dituztela. Emozio negatibo gehiago ere bai. Bestalde, estimulu ezberdinak eragiten dituzte emozioek gizonezko eta emakumezkoengan. Emakumezkoek besteen emozioak identifikatzeko orduan ere abantailak leuzakete. Emozioen funtzioa ere eztabaidatzen da. Oro har, animalia prestatzea litzateke, egoera ezberdin bakoitzean erantzun egokia eman dezan. Malgutasun handikoak dira. Ikuspegi funtzionaltik so, ez legoke emozio txarrik edo onik. Komunikazio-indar handiko mezuak dira. Besteek guri erantzuten diguten

modua ere erregulatzen dute. Interakzio soziala errazten dute. Emozio baikorrak sentitzen dituen gizabanakoak prosoziala izateko aukera handiagoa azalduko luke. Afektu negatiboa positiboa baino askoz konplexuagoa da. Emozioek eragin handia dute oroimenean. Egoera emozionalak eszena zalantzagarrien interpretazioan eragina du. Objektu edo pertsona ezagunei buruzko iritzietan eragina dute. Parte-hartzaileek “alai” daudela zehaztutakoa jazoera positibo bihurtzeko aukera handiagoa da, “triste” daudenean zehaztutakoa baino. Adimen emozionalaren kontzeptua berriki kaleratu da. Bihotza eta arrazoia batzen dituen kontzeptua dugu. Emozioak eta arrazoia bateragarriak eta osagarriak dira. Emozioek arrazoibidea hobetzeko balioa dute.

“Parte-hartzea garapenean: hainbat diskurtso eta jatorri” artikulua, garapenaren diskurtso desberdinekin parte-hartzearen zer suposatzen duten ikertzera dator. Horretarako parte-hartzearen kontzeptua eta zabalpena gogoratuz hasten da. Bigarren Mundu Gerraren osteko Historia ekonomikoan garapenaren teoria desberdinak bata bestearen atzetik sortzen joan ziren. Baina, aldi berean, garapeneko parte-hartzearen helburu, definizio eta praktika desberdinak agertzen dira. Garapenaren inguruko lehen kezka 40ko eta 50eko hamarkadetan plazaratu ziren. 60ko hamarkadan, iparraldeko herrietan garapena ongizatezko estatuarekin gurutzatzen da. 70eko hamarkadan parte-hartzearen metodologia eta praktika sortzen joan ziren. Horietariko bat Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP) dugu. 80ko hamarkadan Landa Diagnostiko Parte-hartzailea (LDP), metodologia eta ikusmoldea dena, daukagu. Hasierako aro luze horretan parte-hartzearen kontua polemikoa zen. Gaur egun, aldiz, Nazioarteko Organismoen adierazpenetan itsatsirik dago. Hasierako txostena, Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP) 1990ean argitara eman zen. 1993ko txostenak dio “Parte-hartze herritarra” garapenerako lanabes bat eta helburu bat dela. Publikoaren eta merkatuaren arteko harremanak; gobernu moten eta deszentralizazioaren arteko harremanak; giza garapena eta demokrazia gaiak darabiltza, besteak beste. Bestalde, autore ugari dago urte horietan zehar gai hau lantzen. Garapen jasangarriaren kontzeptua ailegatzen da horrekin guztiarekin. Definizio-arazoak aipatzen dira. Garapen jasangarriak gaur egungo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapena adierazten du. Txiroen beharrak hazten ez badira, onargarria da. Baita ingurumenaren edukituak mugatuak direla kontuan hartzen bada. 1992ko Lurraren Gailurra zela-eta, Rio-ko Adierazpena daukagu aurrez aurre. Parte-hartzeari buruzko atalak dauzkagu bertan. Botere publikoen eta gizartearen arteko interes anitzen birdoiketa etengabea eta ikasketa-prozesu jarraitua izango litzateke. Pertsona bakoitzaren jarrera egokitua eskatzen da. Argi dago, beraz, garapen jasangarriari dagozkion erabakiak ez direla hautu tekniko hutsak. Parte-hartzea barnerakorra, sinergikoa eta proaktiboa izan beharko litzateke. Munduko Bankuaren aldetik egiten den parte-hartzearen erabilera aztertzen da. 1944ko Bretton Woods-eko hitzarmenarekin sortu zen. 90eko hamarkadan parte-hartzearen diskurtsoa bereganatzen hasiko da. 1996an argitaraturiko *Participation Sourcebook* hartzen da aztergai eta zeintzuk diren “interesaturiko aktoreak” eta zer den zehazki “eragitea eta kontrola banatzea” azpimarratzen da. 1999tik aitzina ekonomiaren ikuspegi neoinstituzionalista batean oinarriturik abiatuko da. Harreman sozial berriak ireki nahi dira lan egiten den herrialdeekin eta herrialdeetan. Parte-hartzearen ikuspegi instrumental argia dago Bankuaren diskurtsoan. Sei talde interesatu izendatzen dira. Kapital

Sozialaren eta Enpoderamenduaren aipamena dago. Lehena, aktore ekonomikoek hazkundera eta garapena sortzeko orduan dauzkaten antolaketa eta elkarrekintzarako erak egiten dute. Bigarrena, instituzioetan parte hartzeko, negoziatzeko, eragiteko, kontrolatzeko eta kontu-argiketarako pertsona txiroen ondasun eta gaitasunen hedakuntza litzateke. Parte-hartzearen diskurtsoa orokortzeak kritika uholde bat ekarriko du. Anbiguotasuna baitago azken funtsean. Instituzioen praktiketan orokortzean areagotuta ikusi da anbiguotasun hori. Galdera batzuk inposatzen dira argibidetzat. Zer garapen-helburu bilatzen da? Parte-hartzearen pean dimentsio politikoa dagoela onartu beharra dago.